



KOLDO

JOXEMARI CARRERE - IDOIA BERATARBIDE





KOLDO

JOXEMARI CARRERE - IDOIA BERATARBIDE



Errenteriako Udala



Liburu honek Creative Commons litzentzia du.

Lehen argitaraldia: Errenteria, 2016ko maiatza.

Testua: Joxemari Carrere.

Irudiak: Idoia Beratarbide.

Argitaratzailea: Errenteriako Udala.

Maketazioa: Joseba Roldán.

Inprimategia: Leitzaran Grafika.

Koordinazioa eta ekoizpen orokorra:

Metrokoadroka (www.metrokoadroka.eus)

ISBN: 978-84-608-7672-4


Lege gordailua: SS-573-2016

Eskerrik asko:


Eli Perez Gaztelu lagunari,
emandako laguntzagatik eta irakaspenengatik.
Errenteriako artxiboari argazkiak uzteagatik.
Koldo Mitxelenaren familiari argazkiengatik
eta eskainitako harreragatik.

Irudimenarekin dena da posible, gauzarik harri-
garrienak gerta daitezke. Eta ederrenak. Eta
eroenak. Imajinatzen hasitakoan jolas amaiga-
bea asmatuko dugu. Eta Koldok izugarri maite
zuen hitzak imajinatzea.


Begiak itxi eta hitz bat esaten zuen Koldok,
adibidez, *etxea*. Eta hitza airean irudikatzen zuen,
ahotik belarrira bidaia egiten. Imajinatzen zuen
hitza letraz letra desegiten zela airean hegan. Be-
larrira heltzerakoan berriro elkartu eta orduan
musika balitz bezala entzuten zuen hitza. Eta
imajinatzen zuen etxe bat, berea, edo kale amaie-
ran zegoen Gaztelutxo baserria, han, hilerriaren
ondoan. Imajinatzen zituen etxe ezberdinak,
handiak, txikiak, bakartiak edo estu-estuak, Goi-
ko kalekoak bezalakoak. Baina gero *dorrea* hitza
etortzen zitzaion burura. Bere kalean denak ez
baitziren etxeak, bi dorre ere bazeuden, Mo-
rrontxo eta Dorrekua. Aspaldian egin zituzten,
zaharrenek ere ez zuten gogoratzen noiz eginak
ziren. Hitz politak ziren etxea eta dorrea. Eta
doinu ederrekoak. Horrela jarraitzen zuen beste
hamaika hitz imajinatzen, ahotik esan eta belarri-
tik sartzerakoan musikarik ederrenak entzunez.




Koldok denbora asko zuen hitzak imajinatzeko, eta irakurtzeko. Etxetik irten ezinik denbora luzea zeraman gaixorik eta, denbora pasatzeko, irakurtzen hasi zen. Denetatik irakurtzen zuen, aldizkariak eta liburuak. Dick Turpin lapur ospetsuaren abenturak maite zituen. Bere burua kale ilunetan imajinatzen zuen, Turpin zen pasadizo harrigarriak bizitzen. Edo Jules Verneren liburuak irakurri ondoren, ilargira bidaia egiten zuen ametsetan; bestetan Nemo kapitaina zen Nautilus urpekontzian munduko ozeanoetan nabigatzen. Ama kantari entzutea oso gustukoa zuen ere. Amak bertso zahar pila zekien, Xenpelarrenak, ia denak, eta etxeko lanak egiten ari zela kantatzen zituen. Koldok haiek denak ikasi zituen, eta batzuetan saiatzen zen bat edo beste asmatzen.




Denbora luzez egon zen eskolara ezin joan, oinetan gaixotasuna bat izan zuelako eta ibili ezinik egon zen; horregatik aitak askotan bizkar gainean hartu eta etxeko sotoan zuen saski taile-rrera eramaten zuen. Hantxe egoten zen Koldo mutil kozkorra aita lanean ikusiz eta kontatzen zizkion istorioak eta herriko kontu zaharrak entzuten. Eta irakurtzen. Maite zuen imajinatzea paper gainean zeuden hitzen doinuak nolakoak ziren. Hitz egiterakoan ere, pertsona bakoitzak bere doinua du, bere musika; batzuek hitzak mozten dituzte, soinuak jaten, edo kantari bezala mintzaten dira, edo haserre bezala. Soinuak, hitzak, esaldiak..., guztien esanahiak nondik ote zetozen asmatzen eta ikertzen ematen zuen denbora. Kuriositatea dibertigarria egiten zitzaion. Eta, gainera, gaixoaldia arintzen laguntzen zion.



Oraindik gazetxo zelarik aita gaixotu egin zen eta lanean hasi behar izan zuen Koldok Lanera fabrikan; baina, hala ere, ikasten jarraitu zuen. Beti letrak, soinuak eta hitzak zituen buruan. Beti hitzen doinua eta jatorria jakin nahian. Bazuen beti aldizkari edo libururen bat esku artean. Eta etengabe galderak egiten aritzen zen: “zergatik euskaraz *dorrea* esaten da eta gaztelaniaz *torre*?”; antzekoak dira baina ez berdinak, zergatik? “*Zerua* eta *cielo* hitzek, antzekoak dirudite, baina ez dira gauza bera” —esaten zion bere buruari. Urte askoz geroago, latin hizkuntza ikasi zuenean argitu zitzaizkion kezka hauek. Galdera horiei guztiei erantzuna bilatzen ibiltzen zen etengabe.




Halako batean bizitza guztiz aldatuko zion zerbait gertatu zen: gerra. Irudimena eta askatasuna desagerrarazi nahi zituzten militar ilun batzuek krudelkeri handiz gerra piztu zuten. Koldo gaztea zen eta ezin zuen onartu militar horiek egin nahi zutena, horregatik haien kontra borrokatzea erabaki zuen. Bera bezala beste jende asko ere elkartu zen. Mendian lubakiak egin zituzten eta hantxe gordetzen ziren bonbetatik eta baletatik babesteko. Bere ondoan lagunak hilak erortzen ziren. Askotan, balen ziztuak belarri ondoan sumatzen zituen. Bonben eztanda hostek lurrari dar-dar eginarazten zioten. Beldurra larruan sartuta bizi ziren; jateko gutxi eta egoera txarrean, lokatzetan beti. Oso gogorra eta latza izan zen.



Baina egoera beldurgarri horretan ere ikasten jarraitzen zuen Koldok. Batzuetan une lasaiak izaten zituzten eta orduan, berriketan egoten ziren lagun artean. Koldok belarriak erne izaten zituen laguneren istorioak entzuten. Batzuek berea ez bezalako euskara erabiltzen zuten, berak eza gutzen ez zituen hitzak erabiltzen zituzten; eta orduan galdetu egiten zien hitz horien esanahiagatik. Eta apuntatu. Beste batzuek ez zekiten euskaraz, baina beren gaztelania ez zen berak eskolan ikasitako gaztelania bezalakoa. Hitzek doinu ezberdinak zituzten. Eta guztia apuntatzen zuen Koldok. Eta gauean, tiro hotsik ez zegoenean, lubakian gordeta zeru izartsua begiratzen zuen, eta ikasitako hitz haiek guztiak errepikatzen zituen. Begiak itxi eta imajinatzen zituen airean bonben eta balen artetik ihes, bere ahotik belarriraino bidaiatzen.



Galdu egin zuten gerra. Koldo eta beste milaka lagun kartzelan sartu zituzten. Beste milakak ihes egin zuten urrutiko herrialdeetara. Kartzelako bizimodua latza eta beldurgarria zen oso. Askotan ziegetatik gauz ateratzen zituzten preso batzuk eta tiro hotsak entzuten ziren. Preso horiek ez ziren itzultzen. Oso-oso gogorra zen bizimodu hura, baina Koldok irautea lortu zuen. Eta kartzela barruan ere ikasten jarraitu zuen; denetarako zuen jakin-mina: hizkuntzak, matematika, historia, zinema... Entzerratuak egon arren, lagunaren artean beti zuten zer irakatsi elkarri.




Urte batzuen ondoren kartzelatik irten zen, baina kanpoan gauzak asko aldatu ziren. Euskara debekatuta zegoen. Liburu asko eta asko debekatuak zeuden. Zaila izan zuen Koldok lana aurkitzea, gerra galdutakoen aldekoa izan zelako. Baina ez zen kikildu. Jarraitu zuen, beste lagun batzuekin batera, bere ideiak defenditzen, ezkutuan bazen ere. Matilde ere ezkutuko lan arriskutsu horietan laguntzen aritzen zen. Koldok eta Matildek egoera zail horretan elkar ezagutu zuten eta bizitza osoa elkarrekin egin zuten, ez ziren gehiago banatu. Maitasuna momentu zailenetan ere pizten baita. “*Matilde* izen polita da, doinu berezia du, *Ma-til-de*” —esaten zion Koldok belarrira.




Kostata, baina lortu zuen lana eta lortu zituen liburuak. Jarraitu zuen ikasi eta ikasi. Alde batetik bestera bidaiatu zuen, beti ikasteko girekin eta bera bezalako pertsonak topatu zituen, hitzak imajinatzen zituztenak. Hizkuntza askotako hitzak ezagutu zituen, batzuk hizkuntza zaharretakoak, inork hitz egiten ez zituenak. Hitz eta hizkuntza haiek euskararekin konparatzen zituen. Bere ikerketa guztiekin orriak eta orriak, liburuak eta liburak bete zituen. Ahalegin horri esker euskararen ikertzaile onenetakoa izatea lortu zuen.



Urteak pasa ziren. Garai gogorak arintzen joan ziren, debekuak jarraitu arren. Koldok euskara ikertzen jarraitzen zuen beste lagun batzuekin batera, eta ohartu ziren, denak euskaldunak izanda ere, euskara modu ezberdinak erabiltzen zituztelako, askotan zaila zutela elkar ulertzea. Batzuek modu batera idazten zuten eta besteek beste modu batera; hitz egin ere batzuek modu batera eta besteek beste modu batera; orduan pentsatu zuten euskaldun guztiok euskara antzeko bat behar zutela, elkar ulertzeko. Garai berriak etorri ziren. Debekuak kendu. Eskolan euskara ikastea baimendu zuten. Gero eta gehiago idazten ziren liburuak euskaraz. Irratian eta telebistan ere euskaraz egin zitekeen. Koldok egindako lan handiak bere fruitua izan zuten.




Amaren bertsoak entzuten zituen haurra adineko pertsona zen orain; bizitza batzuetan gogorra, baina baita pozgarria izan zuena. Orain zaharra zen, baina oraindik maite zuen txikitako kaleetan barrena ibiltzea. Eta Goiko kaleko plazatxoan, Dorrekua dorrearen ondoan esertzen zen, ingurua begiratu eta hitz bat esaten zuen poliki. Eta ahotik irtetzen zenean milaka soinutan desegiten zen, denak airean bidaiatzen eta hegan. Pixkanaka belarritik sartzen zitzaizkion hitz eta soinu berriak osatzen. Hitz bakoitza mundu bat zen. Hitz bakoitzarekin mundu zabalean bidaiatzen zuen. Eta plazatxo horretan eserita imajinatzen zuen hitz horiek guztiak, mundu horiek guztiak hitz bakar batean biltzen zirela. Hitza bere barnean puzten zen, handitzen, zabaltzen. Hitza Euskara zen.



Ilargi beteko gau argi batean Goiko kaleko plazatxora joaten bazarete, Dorrekua eta Morrontxo dorreen itzalpean Koldoren itzal luze eta argala ikusiko duzue, hantxe eserita, hitzak airera esaten. Bere ondoan Matilde egongo da, Koldoren Dick Turpinen abentura harrigarriak entzuten; eta ilargira egindako bidaiarena; eta Nautilus urpekontzian ozeanoetan nabigatu zueneko. Matildek irribarre ederra eskainiko dio, abentura horietan eskutik helduta abiatuz.

Belarriak erne badituzue, hitzak zuen barrura sartuko dira eta zuek ere Koldorekin batera egingo duzue euskararen bidaia zoragarria.







Errenteriako Udala



HERRI BIZIA